

Etxekoekin hizketan

Anak eta Michael eguna pasa dute Bilbon. Gero, hotelean etxera deitu eta idatzi dute egunean zer egin duten kontatzeko. Saio honetan familiako partaideen izenak ikasiko ditugu, baita aditz denbora bat ere: Burutua. Horretarako IZAN eta UKAN aditzak laguntzaile modura ere erabiltzen direla ikusiko dugu. Animo eta zuk ere hitz egin!

Ana y Michael han pasado su primer día en Bilbao. De vuelta al hotel, han llamado y escrito a sus respectivas familias para contarles lo acaecido durante ese día. En esta lección aprenderemos vocabulario relacionado con la familia y un nuevo tiempo verbal: El pretérito perfecto. Para todo ello, veremos el uso a modo de verbo auxiliar de IZAN y UKAN. ¡Seguro que al final de la lección serás capaz de escribir un mail en euskara!



entzumena

Goiz osoan dendaz denda ibili eta erosketa asko egin ondoren, logelan dago Ana. Ohean etzanda dago, nekatuta. Telefonoa hartu eta amona deitu du. Entzun elkarrizketa eta adierazi esaldiak egia ala gezurra diren.

Después de visitar algunas tiendas y realizar un sinfín de compras, Ana está descansando en su habitación. Tumbada en su cama se le ha ocurrido llamar a su abuela.

Escucha la conversación y adivina si las siguientes frases son verdaderas o falsas.

Amonari deika



- Anaren amona oso ondo dago.
- Ana Donostiara joan da.
- Anak ez du Lehendakaria ezagutu.
- Lehendakaria Gasteizen bizi da.
- Anak lagun asko ditu Euskal Herrian.
- Ana maiteminduta dago.
- Anaren ama etxean dago.
- Anaren aitak gaur ez du lan egin.
- Amonak goizean kamamila edan du.
- Anak eta amonak telefonoz hitz egin dute.

Bideoa

Familia

Bideoa ikusiko duzu. Familiako izenak ikasiko dituzu. Ondoren, irudiak eta izenak lotu behar dituzu.

Ahora, verás un video. Fíjate con atención y aprende el vocabulario. Luego, tendrás que relacionar las imágenes con sus nombres.

Lotu irudiak eta izenak
Relaciona las imágenes y los nombres




AHIZPA AITA AITONA ALABA AMA AMONA

ANAIA ARREBA BILOBAK NEBA SEMEA






irakurmena



Simpson familia

Nork ez du ezagutzen familia ospetsu hau? Irakurri testuak eta asmatu nor den.

Seguramente conocerás muy bien a esta famosa familia. Lee los textos y adivina a qué personaje se refieren.



1. Bakarrik dago. Bere bizitza aspergarria da. Bulegaria da. Gauean, etxean dago. Asko erretzen du, zigarro asko. Telebista gustukoa du; batez ere, Macgiver. Margeren ahizpa da. Barten izeba.
2. Bere koinatua, Homer, gorroto du. Orain bakarrik dago. Dibortziatuta dago, bi aldiz. Margeren eta Pattyren ahizpa da. Bere ilobak Bart, Lisa eta Maggie dira.

3. Etxeko txikia da. Barten arreba txikia da. Homerrek asko maite du. Hamabi hilabete ditu. Beti txupetea du ahoan.
4. Familiako burua da. 36 urte ditu eta Springfield herrixkako zentral nuklearrean egiten du lan. Eguna Donuts-ak jaten pasatzen du. Ezjakina, ahoberoa, tripontzia eta alferra da. Baina gizon jatorra da. Margeren senarra da, Bart Simpsonen aita.
5. Homerren emaztea da. 34 urte ditu eta etxekoandrea da. Ilea urdinez tindatua du. Atsegina eta burutsua da. Tom Jones asko gustatzen zaio. Oso gidari txarra da. Patty Bouvierren ahizpa da.
6. Homerren eta Margeren alaba da. Zortzi urte ditu. Ikonoklasta, intelektuala, barazkijalea eta sentibera da. Oso ikasle ona da, oso burutsua. Saxoa eta poesia gustukoak ditu. Bere anaia, Bart, ezin du jasan. Batzuetan triste dago.
7. Simpson senar-emazteen semea da. Bere gurasoak Homer eta Marge dira. Hamar urte ditu eta oso bihurria da. Irudimentsua, ironikoa eta oso ganberroa, baina bihotz onekoa. Bi esaldi ditu: "Ni ez naiz izan" eta " Biderka ezazu zeroz zeure burua". Lisa eta Maggie bere arrebak dira.
8. Zaharra da. Aitona. Oso jakintsua da. Gaixo dago, Alzheimer du. Gay eta lesbianen elkarteko presidentea da.

ERANTZUN GALDEREI

Responde a las preguntas.

El *(r)en* que ves detrás de algunos nombres significa *de quién*.

Lo estudiaremos más adelante.



Homer da

Es Homer



Homerren semea da


Es el hijo de Homer

Nor da aita?
 Nor da ama?
 Nortzuk dira amaren ahizpak?
 Nortzuk dira Margeren alabak?
 Nor da Lisa eta Maggieren neba?


Nortzuk dira Barten arrebak?
 Nortzuk dira ahizpa gazteak?
 Nor da semea?
 Nor da aitona?
 Nor da izeba?
 Nortzuk dira Selmaren ilobak?

Nire familia


Irakurri testuak eta lotu irudiekin.
Lee los textos y relaciónalos con las imágenes.




Ni Bittor naiz. Ezkonduta nago. Idoia da nire emaztea, oso polita da. Ile beltza du. 12 urteko semea dut: Unai.



Kaixo, Karmele naiz. Ezkonduta nago. Fernando da nire senarra, burusoila eta oso beltzarana. Mikel nire semea biboteduna da, eta alaba, Itziar, ile beltza. Itziarren senarra Iñigo da, ile kizkurra du eta futbolaria da. Bi urteko biloba dut: Aitor.



Ni Ane naiz. Dibortziatuta nago eta seme txiki bat dut: Jon. Gurasoekin bizi naiz: Pello eta Mirari, oso gazteak dira eta, gainera, jatorrak. Nire ahizpa, Nekane, albaitaria da, oso langilea da.




Ni Aitor naiz. Ezkongabea naiz. Amona eta amarekin bizi naiz. Ama Arantxa da, ile beltza du eta berrogeita hamabost urte ditu. Amona Luisak laurogei urte ditu eta amaren etxean bizi da. Arreba bat dut, Mainer. Ile motz-motza du, eta oso gaztea da, hogei urte ditu.

AISA 1, 72/73 or.

Galderei erantzun. Contesta a las preguntas

- Nor da Bitorren emaztea?
- Zenbat urte ditu Idoiaren semeak?
- Karmele ezkontuta dago?
- Nor da Karmeleren senarra?
- Nolakoa da Fernando?
- Karmelek badu bilobarik?
- Anek badu senarrik?
- Nortzuk dira Aneren gurasoak?
- Nolakoak dira Aneren gurasoak?
- Zer da Nekane?
- Aitorrek badu emazterik?
- Zenbat urte ditu Aitorren amak?
- Aitorrek badu arrebarik?
- Nolako ilea du Maiderre?

Etxerako**Nire familia**

Deskribatu zure familia. Hurrengo klasean ikasgelan irakurri behar duzu testua.

Describe a tu familia. En la siguiente clase leerás la descripción a tus compañeros,-as.



Etxerako lana irakurri

Nire familia

Irakurri zure familiaren deskribapena.

Lee la descripción de tu familia.

Michaelen e-maila



Michaelek bere lagunari e-maila idatzi dio. Irakurri eta aurkitu gezurrak.

Michael ha escrito un e-mail a un amigo. Léelo y encuentra la frase que no es verdadera.

Kaixo, Frank:

Zer moduz Alemanian? Ni primeran nago Euskal Herrian. Leku zoragarria da, hemengo jendea oso atsegina da eta euskara oso hizkuntza polita da. Hiru izarreko hotelean nago, Euskalduna da hotelaren izena eta hotelean neska bat ezagutu dut, Ana du izena. Argentinarra da, oso neska jatorra da eta Anarekin ibili naiz egun hauetan. Frank, egon lasai, lagunak bakarrik gara, ez dugu ezer egin (kar-kar), baina neska hau oso ondo dago.

Gipuzkoa ezagutu nahi dut pixka bat, Ordiziako azoka, sagardotegia ... nik, beti bezala, janaria dut buruan. Gaur goizean kalean Ana ikusi dut eta biok erosketak egin ditugu, zuretzat ere erosi dut gauza txiki bat. Gero ile-apaindegira joan naiz eta ilea moztu dut. Beno, Frank, ondo segi eta hurrengora arte!

Michael

Aurkitu gezurra.
Elige la opción que no es verdadera.



Nolakoa da Euskal Herria?

- a) Oso leku zoragarria da.
- b) Leku zoragarria da.
- c) Ez da oso zoragarria.

Nolakoak dira euskaldunak?

- a) Euskaldunak oso atseginak dira.
- b) Euskaldunak ondo bizi dira eta lasaiak dira.
- c) Euskal Herriko jendea lasaia da.

Zenbat izar ditu Euskalduna hotelak?

- a) Hiru.
- b) Bost.

Nongoa da Ana?

- a) Ana Argentinakoa da.
- b) Ana ez da Euskal Herrikoa.
- c) Ana ez da Argentinakoa.

Noiz ikusi du Ana?

- a) Atzo.
- b) Gaur goizean ikusi du.
- c) Goizean.

Zer egin du Michaellek gaur?

- a) Fruta erosi du.
- b) Erosketak egin ditu.
- c) Ile-apaindegira joan da.

Testua aztertzen

Azpimarratu "Michaelen e-maila" testuko aditzak eta ikusi forma berriak.
Subraya los verbos del texto "Michaelen e-maila" y fijate en su construcción. ¿Cómo se han formado? ¿Qué significado tienen?

Zergatik jarri dugu batzuetan NAIZ eta besteetan DUT?
¿Por qué hemos usado auxiliares diferentes, a veces NAIZ y otras DUT?



**JAIKI NAIZ
GOSALDU DUT
DUTXATU NAIZ
IBILI NAIZ
JAN DUT
EROSI DUT
JOAN NAIZ
EZAGUTU DUT
IKUSI DUT
MOZTU DUT**



Du, du, du...
da, da, da,
hori da nire duda!

ETORRI NAIZ ETA IKUSI DUT

BURUTUA. El pretérito perfecto.

El verbo **IZAN** además de significar *ser*, *estar* y *tener* sirve como auxiliar de otros verbos: Ni bizi naiz. Mikelek nahi du. Guk dirua behar dugu. Pero con la mayoría de los verbos tiene otro significado:

Etorri da	significa	Ha venido (vino)
Ibili naiz		He andado (anduve)
Ekarri du		Ha traído (trajo)
Erosi dut		He comprado (compré)

Etorri, ibili, ekarri y erosi son participios que significan *venido, andado, traído y comprado*. Como has podido ver en la lección anterior también se usan como imperativos. Los dos primeros expresan acciones intransitivas y llevan como auxiliar la forma NAIZ (NOR). Los dos siguientes son verbos transitivos y se conjugan con el DUT (NOR-NORK).

En algunos casos el empleo de uno u otro puede variar el sentido de los verbos:

Izan da	significa	Ha sido, ha estado (fue, estuvo)
Izan du		Ha tenido (tuvo)
Atera da		Ha salido (salió)
Atera du		Ha sacado (sacó)

Este tiempo se usa para acciones acabadas, en tiempos aún sin acabar: Hoy, este año, esta semana, este mes, esta década...

EZEZKOAK. Negativas.

Si la frase es negativa se invierte el orden de la perífrasis verbal. No obstante, muchas veces no se tiene en cuenta esta regla. Lo más importante es poner el auxiliar después de la negación EZ.

Ikusi duzu telebista?	Ez, ez dut ikusi telebista, puskatuta dago.	No, no he visto la televisión, está rota. (<i>negamos la acción de ver</i>)
Ikusi duzu telebista?	Ez, ez dut telebista ikusi, bideoa ikusi dut.	No, no he visto la televisión, he visto el video. (<i>negamos más el objeto visto</i>)

Deklinatu hitzak: Nor ala nork

- Ni____ Perun bizi naiz.
 Ni____ liburua irakurri dut.
 Lagun____ ez dira hemen bizi.
 Marrubi____ asko balio dute.
 Zu____ oso jatorra zara.
 Zu____ lan asko egin duzu.
 Hori____ oso zaila da.
 Auto____ asko balio du.
 Zu____ ariketak egin nahi dituzu.



Zu____ Brasilgoa zara.
 Neska____berandu etorri da.
 Neska____ arraina erosi du.
 Neska____ Txilekoak dira.
 Neska____ oso umore ona dute.
 Emakume____ lan asko egin dute.
 Gu____ konputagailu berria erosi dugu.
 Gu____ mendira joan gara.
 Gu____ lana egin dugu.
 Lagun____ umore ona du.
 Lagun____ umore ona dute.

Jarri aditza. Coloca el verbo.

Nor

Michael Bilbora etorri _____.
 Lagunak oso handiak _____.
 Zuek lurrera erori _____.
 Ni Berlinean jaio _____.
 Ana dendara joan _____.
 Gu lanean hasi _____.
 Zuek autobusean etorri _____.
 Lagunak trenez joan _____.
 Haiek ez _____ hegazkinez etorri.
 Haurra ikastolan erori _____.
 Zu dendara pozik joan _____.
 Gu Gasteizen izan _____.
 Ikaileak erne egon _____ klasean.
 Zu dendan sartu _____.
 Gu telebistan irten _____.
 Goizean Pellorekin egon _____ zuek.
 Laguna ez _____ urduri jarri, baina ni oso urduri jarri _____.

Nor-nork

Guk abesti hori entzun _____.
 Zuek Karmele ikusi _____.
 Lagunek piperrak erosi _____goizean.
 Patxik liburua ireki _____.
 Zuk begiak itxi _____.
 Euskal Herriak oso hiri politak _____.
 Guk ez _____ ogirik jan.
 Nork idatzi _____ e-maila?
 Lagunak eskutitza idatzi _____.
 Guk lan asko egin _____.
 Kepak ez _____ lanik egin.
 Neskak bi liburu eraman _____eskolara.
 Goizean goiz, txoriak janaria bildu _____.
 Guk ez _____perretxikorik bildu.
 Zuek iturria ireki _____.
 Lagunek plazan musika entzun _____.

Jarri aditza

Nik ez _____ hori esan.

Zuek berandu iritsi _____.

Zuek gozokiak erosi _____ eta oso pozik jarri _____.

Umeak ariketak oso ondo egin _____.

Garbiñek oso zorte ona _____.

Garbiñe oso jatorra _____.

Horrek ez _____ balio.

Haurrak berandu etorri _____ eskolara, baina lanak oso azkar eta oso ondo egin _____.

Guk gaur ez _____ egunkaririk erosi.

Marian eta Aitor garaiz jaiki _____ gaur.

Gaur izugarri busti _____ gu.

Michael hotelera joan _____.

Michaelek mezua idatzi _____.

Gu bidaia-agentziara joan _____.

Zuek ez _____ sarrerarik erosi.

Sarrerek diru asko balio _____, ez _____ merkeak.



ADITZAK

Irudiak ikusi eta ikasi aditzak. Ondoren, lotu bi zutabeak.
 Fijate en el dibujo y apréndete los verbos. Después de ver la imagen,
 intenta unir las dos columnas.

ADITZAK

esnatu altxatu garbitu eseri agurtu
 jantzi atera sartu lan egin dantzatu
 gosaidu bazkaidu afaldu edan
 igo jaitsi joan eraman erosi
 irakurri bizikletaz ibili eskatu ordaindu txistua jo
 harria jaso gidatu eguzkia bartu

<p>ESNATU ALTXATU GARBITU ESERI AGURTU JANTZI ATERA SARTU LAN EGIN DANTZATU GOSALDU BAZKALDU AFALDU EDAN IGO JAITSI JOAN ERAMAN EROSI IRAKURRI BIZIKLETAN IBILI ESKATU ORDAINDU JASO GIDATU EGUZKIA HARTU TXISTUA JO</p>	<p>ANDAR EN BICICLETA BAILAR BAJAR BEBER CENAR COMER COMPRAR CONDUCIR DESAYUNAR DESPERTARSE ENTRAR IR LEER LEVANTAR LEVANTARSE LIMPIAR LLEVAR PAGAR PEDIR SALIR, SACAR SALUDAR, DESPEDIR SENTARSE SUBIR TOCAR EL TXISTU TOMAR EL SOL TRABAJAR VESTIRSE</p>
--	--



Zu antzerkilari

Egin keinuak, mimika pixka bat eta zure ikaskideak zer egin duzun kontatuko du.

Saca ese,-a artista que llevas dentro y haz un poco de mímica. Tu compañero,-a narrará qué has hecho.



Nire eguna

Benito Lertxundi, Sting bezala, abeslaria da, baina ez du zalantzarik (dudarik) euskararekin, Aitorrek eta Mirenek ere ez. Eta zuk? Jarri aditza testuetan.

El cantante vasco Benito Lertxundi no tiene dudas con los verbos, ni tampoco Aitor ni Miren. A ver cómo te desenvuelves tú.

Benito Lertxundiren eguna



Sting bezala, Benito Lertxundi abeslaria da. Orion bizi _____. Gaur goiz jaiki _____. Gosaldu ____ eta paseatzera joan _____. Gero, gitarra jo ____ eta abesti bat asmatu _____. Ondoren, kalera irten ____ eta ardo bat edan ____ tabernan lagunekin.

Bazkaldu eta gero, siesta egin _____. Lokalera joan ____ eta taldearekin entseatu _____. Gauean, afaldu, liburua irakurri ____ eta ohera joan _____.

Gure eguna (Aitor Garcia eta Arantxa Garmendia)



Gu gaur jaiki eta kalera joan _____. Autobusa hartu ____ eta lantegira joan _____. Han lan asko egin _____. Eguerdian, oso nekatuta, etxera itzuli _____. Bazkaldu, kafea hartu eta telebista ikusi _____. Arratsaldean ez ____ lan askorik egin lantegian. Eskerrak!

Nire eguna (Miren Azkarate)



Ni garaiz jaiki ____ gaur. Autoa hartu eta Gasteiza joan _____. Han bilera izan _____. Berandu irten ____ bileratik eta, korrika eta presaka, taberna batean bazkaldu _____. Kaferik hartu gabe, bulegora joan eta egun gogorra izan _____. Kalera joan ____ nekatuta. Beste bilera batera joan ____ gero. Azkenean, etxera joan, iritsi, etzan, deskantsatu eta, gero, afaldu _____.



etxerako lana

Anak lehenengo pertsonan idatzi du e-maila. Osatu NAIZ edo DUT aditzekin.
Ana ha escrito su e-mail en primera persona. Complétalo con los verbos NAIZ o DUT.



Anak bere ahizpari

Kaixo, txiki:

Aspaldiko! Bai, egia da, ez ____ denborarik hartu, barkatu. Ni oso ondo nago, primeran eta zuek, zer? Euskal Herria ikusgarria da, usain berezia dago, belar usaina, euskaldunak zintzoak dira, agian hotzak ere bai. Orain arte ederki pasatu dut. Mutil bat ezagutu ____, Michael. Uff, oso dotorea eta polita da. Michael Alemaniatik etorri da eta biok gauza asko egin ditugu. Bilbo pixka bat ikusi dugu, oraindik ez dugu dena ezagutu, baina egun asko daude...

Guggenheim ederra da benetan, museo asko bisitatu dut. Gaur goizean hamarretan esnatu ____, dutxatu ____ eta hotelean gosaldtu _____. Oso ogi ona dago hemen, baserriko ogia, gurina eta marmelada jarri diot eta ummm, ze ona! Gero kalean ibili ____, pintxo bat jan____, erosketak egin ditut Michaelekin eta hotelera etorri naiz, orain hemen nago. Musu handi-handi bat eta bihar arte.

Anita

Lotu bi zutabeak.
Relaciona las dos columnas.

Euskal Herria
Euskaldunak
Michael
Ana gaur berandu
Anak gaur

ogia gosaldtu du.
ikusgarria da.
esnatu da.
zintzoak eta hotzak dira.
dotorea eta polita da.

Testua osatu

Eskutitza

Osatu postala hitz hauekin. Completa la postal con estas palabras.

behar dut berriro ditugu eguerdian eguzkia
hemen laster arte zer moduz

Kaixo, Lurdes, _____ ?

Ni, _____ oso ondo nago.

Asteburu honetan eskiatzera etorri gara eta oso zorte handia izan dugu.

Oso eguraldi ona dugu.

Gauean elurra egin du eta goizean _____.

Gaur zortzietan jaiki gara. Eskiak jantzi eta pistara joan gara.

Goiz osoa pasa dugu gora eta behera.

Hamaiketan kafea hartu dugu eta _____ mendira igo gara.

_____ hotelera jaitsi, bazkaldu eta siesta egin dugu, lasai-lasai.

Arratsaldean Jacara joan gara.

Jaca oso hiri polita da eta giro ona dago.

Taberna asko dago eta trago batzuk hartu _____.

Gero, hotelera itzuli gara. Ederki afaldu dugu eta gero hoteleko tabernan egon gara. Pelikula ikusi dugu:

Amenabarren "Los otros", oso ona da. Oso gustura egon gara.

Beno, neska, orain berandu da. Ohera joan behar dut.

Bihar berriro eskiatu nahi dut eta garaiz jaiki _____.

Galdera asko dut zuretzat: Zer moduz lagunak? Ikusi al duzu Iñaki? Etorri nahi duzu Aste Santuan gure etxera?

Idatzi laster eta erantzun galdera hauei. Ondo ibili eta _____. Musu bat. Agur!



Deklinatu hitzak

Amona_____ oso jatorra da.

Amona_____ hirurogeita hamar urte ditu.

Gu___ ez gara joan, gu___ lan handia eduki dugu.

Gure lehengusu _____ Bizkaian bizi dira. Lehengusu_____ etxe polita dute.

Ni___ familia handia dut. Horregatik, ni___ oso zoriontsua naiz.

Mutil hau_____ ez du anaiarik, mutil hau___ seme bakarra da.

Gu___ ez daukagu arrebarik. Gu___ zer gara, mutilak ala neskak?

Neska_____ jatorrak dira. Neska___ umore ona dute.

Gu___ hiru seme ditugu. Gu___ bost gara etxean.

Idatzi zuk ikaskide bati e-maila eta kontatu gaur zer egin duzun.
Escribe un e-mail a un compañero,-a de clase y cuéntale qué has hecho hoy.



Ikasgai honetan hau ikasi duzu:

- Familiako izenak.
Vocabulario relacionado con la familia.
- Familiakoei eta lagunei e-maila idazten.
A escribir un breve e-mail a tu familia.
- Aditzaren aspektua: Burutua.
El pretérito perfecto compuesto.
- NOR eta NORK bereizten.
A diferenciar los casos NOR y NORK y el uso como auxiliar de los verbos NAIZ y UKAN.

BADAKIZU

¿Sabías que..?
Do you know?
Weisst du
Saviez—vous que?
Vôce sabia?

Euskal komunikabideak

Euskal komunikabideek lan asko egin dute, baina oraindik asko falta da egoera normalizatzeko. Euskal prentsa poliki-poliki aurrera doa. Oso zaila izan da euskal prentsaren bidea. Jazarpen asko sufritu ditu, garai txarrak pasatu ditu. 1980an **Argia** aldizkaria sortu zen. 1990ean **Euskaldunon Egunkaria**. Krisi memento handiak bizi izan dira. 2003an Del Olmo epaile espainolak Egunkaria itxi eta **Berria** sortu zen. Euskal prentsa egoera larrian egon da eta dago. Berria oso egunkari ona da, euskara jatorra erakutsi nahi dute eta ikuspuntu euskalduna du. **Euskal Telebista** eta **Euskadi Irratia** hedabide publikoak dira eta haien egoera ona da.

Euskal prentsa



BERRIA eta HITZA dira euskara hutsezko egunkariak.



Astekari gehiago ditugu. Sexu aldizkariak, zientzia aldizkariak, bertsolari aldizkariak...

Telebista



Telebistak nahiko berriak dira Euskal Herrian. Orain arte erdaraz bakarrik ikusi dugu telebista, baina gaur egun Euskal Herrian zortzi telebista ditugu. Xaloa Telebista, Goierri Telebista, Goiena Telebista, Urdaibai Telebista, Zarautz Telebista, Ttipi-ttapa Telebista eta Iparraldeko Telebista eta Euskal Telebista. Laster telebista digital gehiago izango ditugu.

Irratia



Euskal Herrian irrati asko ditugu. Euskadi Irratia... Euskadi Gaztea eta EITB Irratia musika irratiak dira. Iparraldean Gure Irratia, Irulegi Irratia eta Xiberoko Boza. Euskal Herria Irratia Nafarroakoa da eta Bizkaia Irratia Bizkaikoa. Interneten ere badituzu.

Material osagarria

Deklinatu hitzak: Nor ala nork

- Ni____ Argentinan bizi naiz.
 Ni____ liburua irakurri dut.
 Lagun____ ez dira hemen bizi.
 Lagun____ asko balio dute.
 Zu____ oso jatorra zara.
 Zu____ lan asko egin duzu.
 Hori____ oso zaila da.
 Hori____ asko balio du.
 Zu____ ariketak egin nahi dituzu.
 Zu____ Frantziakoa zara.
 Neska____ berandu etorri da.
 Neska____ arraina erosi du.
 Neska____ Txilekoak dira.
 Neska____ oso umore ona dute.
 Gu____ konputagailu berria erosi dugu.

Jarri aditzak

Nik ez _____ hori esan.

Zuek berandu iritsi _____.

Zuek gozokiak erosi _____ eta oso pozik jarri _____.

Umeak ariketak oso ondo egin _____.

Garbiñek oso zorte ona _____.

Garbiñe oso jatorra _____.

Horrek ez _____ balio.

Haurrak berandu etorri _____ eskolara, baina lanak oso azkar eta oso ondo egin _____.

Guk gaur ez _____ egunkaririk erosi.

Marian eta Aitor garaiz jaiki _____ gaur.

Gaur izugarri busti _____ gu.

DEKLINATU. Declina las palabras. Jarri aditzak

Gu Argentina _____ bizi gara.

Gu oso ikasle on _____ gara.

Lagun _____ etxe ona dute.

Ni Alemania _____ naiz. (nongoa)

Lagun _____ nota onak ditu.

Gizon _____ hondartzan dago.

Bilbo Bizkaia _____ dago.

Guk ez dugu boligrafo _____.

Lagun _____ ez dute bibote _____.

Liburu _____ ez dago eskolan.

Ikasle _____ oso langileak dira.

Ikasle _____ oso nota onak ditu.

Erroma (Roma) Italian _____.

Gu Santurtzin bizi _____.

Guk ez _____ autorik.

Zuek oso langileak _____.

Zuek ez _____ motorik.

Baserritarrek baserri polita

_____.

Baserritarrek umore ona _____.

Baserritarra oso jatorra _____.

Ni hor bizi _____.

Nik etxe polita _____.

Zu _____, baina zuk _____.

Arantxa oso nekatuta _____.